

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3793

EBAZPENA, 2014ko abuztuaren 25ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetara deia egiten duena.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, bere 33. artikuluan ezartzen duena betez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro antolatzen ditu hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak, dekretu honen esparruan zehazten diren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen zerbitzuan diharduten langileek hizkuntza-eskakizuna egiazta dezaten.

Halaber, ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoak, bere 15.2.b) paragrafoan ezartzen duena betez, Justizia Administrazioiko Kudeaketa, Izapidetze eta Laguntza kidegoetako eta auzitegiko medikuen eta laborategiko laguntzaileen kidegoetako funtzionarioek ere aukera dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro antolatzen dituen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi arruntetara aurkezteko.

Bestalde, 1999ko otsailaren 18ko dataz, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten.

Lankidetzaren hitzarmen honetako bosgarren klausulak bide ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko karrera judizialeko kideei Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen dituen deialdietara aurkezteko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Karrera Fiskaleko eta Idazkarien Kidegoko kideek euskara ikasi eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeari begira, 2005eko uztailaren 28an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten honakook: Justizia Ministerioak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak.

Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetzaren hitzarmen horrek, laugarren klausularen bidez, aukera ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Karrera Fiskaleko eta Idazkarien Kidegoko kideei hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen diren deialdietara aurkezteko.

Azkenik, maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuak, Ertzaintzaren euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretua aldatzen duenak, bere hirugarren Xedapen Gehigarrian, aukera ematen die Ertzaintzaren praktiketako eta karreradun funtzionarioei IVAPek egiten dituen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdietan parte hartzeko.

Horiek horrela, aipatutako araudia betez, hauxe

2014ko irailaren 9a, asteartea

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzearen euskara azterketak egiteko 2014 urteari dagokion bigarren deialdia onartzea, eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egiten duen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpen honen aurka, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114 eta hurrengo atalen arabera, Justizia eta Herri Administrazio sailburuari gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hila-beteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abuztuaren 25a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

I. ERANSKINA

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIAREN EBAZPENARENA

OINARRIAK

1. oinarria.– Deialdiaren helburua.

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutako lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatze aukera ematen du deialdi honek. Hizkuntza eskakizun bakoitza Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila bana-rekin dago baliokidetuta: B1, B2, C1 eta C2, hurrenez hurren.

Edozein modutara, izangaiek hizkuntza-eskakizun bakarreko azterketa egin ahal izango dute.

2. oinarria.– Deialdian parte hartu dezaketenak.

Deialdi honen bidez deitutako azterketetara aurkeztu ahal izango dira:

– Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ezarpen-esparru barruko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren zerbitzuan diharduten langileak.

– Justizia Administrazioiko Kudeaketa, Izapidetze eta Laguntza kidegoetako eta auzitegiko medikuen eta laborategiko laguntzaileen kidegoetako funtzionarioek, ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuaren 15.2.b) paragrafoak ezartzen duena betez.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko karrera judizialeko kide, kidegai, behin-behineko epaile, ordezkotako magistratu, ordezkotako epaile eta bake-epaileak, 1999ko otsailaren 18ko dataz, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenaren bostgarren klausulak ahalbidetzen duena betez.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Karrera Fiskaleko kide eta kidegaiak, ordezkotako fiskalak, Idazkari Judizialen Kidegoko kide eta kidegaiak, eta behin-behineko Idazkari Judizialak, 2005eko uztailaren 28an Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetzaren hitzarmenak ezartzen duena betez.

– Ertzaintzaren praktiketako eta karreradun funtzionarioak, Ertzaintzaren euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuko hirugarren Xedapen Gehigarriak ahalbidetzen duena betez.

3. oinarria.– Izena ematea.

Azterketetan parte hartu ahal izateko eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik hasita.

Eskabideak, epe horren barruan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak berariaz prestatutako eskabide-orriaren bidez aurkeztu beharko dira. Eskabide-orri hori deialdi honen II eranskinean eta Interneteko www.ivap.euskadi.net helbideko Euskara atalaren Hizkuntza-eskakizunak azpialdean eskainiko da.

Interesatuak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dute eskabidea. Hona hemen helbideak:

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Errekalde zumarkalea 18, 48009 Bilbo.

San Bartolomé 28, 20007 Donostia.

Unibertsitateko etorbidea, 20560 Oñati.

Halaber, eskabideak azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. atalak dioen edozein eratan aurkez daitezke.

Eusko Jaurlaritzako sare korporatibora sarbidea duten langileek era elektronikoan egingo dute deialdi honetarako eskabidea. Horretarako, langileak intraneteko Jakina atariko IVAPen webgunean sartuko dira, eta horren barruan Hizkuntza Eskakizunak atalean. Handik, XL-Nets segurtasuneko sistemari sartuz gero, Alta/Aldaketa gunean agertuko da eskaera elektronikoa egiteko jarraitu behar duten sistema.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten Ertzaintzaren praktiketako eta karreradun funtzionario guztiek eskabidea egin beharko dute saileko «Gurenet» intranetaren bitartez, bertan eskuragarri izango den eskabide eredua betez. Eskabideak aurkezteko epea, Ebazpen hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, 15 egun naturalekoa izango da. Epe hori amaituta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariak bidaliko du IVAPera eskabidea aurkeztu dutenen zerrenda.

4. oinarria.– Deialdira lehenengo aldiz aurkeztuko direnak.

IVAPek antolatutako deialdietara lehenengo aldiz aurkezten direnek, edota inoiz aurkeztu arren, ondoren lanpostuz aldatu direnek, lanpostu berriaren izenaren eta kodearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera, hizkuntza-eskakizunen erregistroan jaso ahal izateko.

Ertzaintzari dagokionez, Segurtasun Sailak egiaztatuko ditu lanpostuei dagozkien inguruabarrak.

5. oinarria.– Laugarren hizkuntza eskakizunera aurkeztuko direnak.

Laugarren hizkuntza-eskakizuneko azterketa egin ahal izango dute, alde batetik, lanpostuan hizkuntza-eskakizun hori daukaten langileek, eta, bestetik, betetzen duten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edozein izanda ere, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu edo horren baliokidea den tituluren bat lortu duten langileek.

Lehenengo aldiz aurkeztu eta 3. hizkuntza eskakizunaren baliokidea den tituluren bat daukate-nek, horren kopia ere bidali beharko dute eskabidearekin batera.

Era berean, 4. hizkuntza eskakizuneko azterketara aurkeztu ahal izango dira apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko baldintzak betez, Europarako Marko Bateratuko C1 mailari dagokion azterketa egiteki salbuesita daudenak ere. Horretarako, C1 mailari dagokion azterketa egiteki salbuesten dituen ikasketak egin izana kreditatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, Unibertsitateki emanak, aipatutako Dekretuko 2. artikuluan eta 5. artikuluko 3. atalean zehazten den moduan.

6. oinarria.– Azterketa egiteko egokitzapenak behar dituzten azterketariak.

Azterketak egiteko egokitzapenak behar dituzten azterketariak eskaera-orrian adierazi behar dute zer egokitzapen eskatzen duten (aulki edo mahai berezia, entzungailuak, eta abar). Azterketari horiei hizkuntza gaitasun berdina eskatuko zaie.

7. oinarria.– Deialdira onartutakoen zerrendak.

Deialdi honetara aurkezteko eskabideak egiteko epea amaitu, eta horiek aztertu ondoren, deialdira onartutakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko da IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, www.ivap.euskadi.net webgunean.

Biharamunetik hasita, zazpi egun naturaleko erreklamazio-epea izango dute interesatuek erreklamazioak IVAPeko zuzendariari idatziz aurkezteko. Epea agortuta erreklamaziorik ez bada, onartutako azterketarien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Erreklamaziorik izan bada, aurkeztutakoak aztertu eta ebatzi ondoren, deialdira onartutako azterketarien behin betiko zerrenda argitaratuko da IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, IVAPeko webgunean.

8. oinarria.– Epaimahaia.

Azterketak zuzendu eta neurtuko dituzten epaimahaikide titularrak eta ordezkioak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak izendatuko ditu ebazpen bidez. Ebazpen hori, deialdira onartutakoen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da IVAPeko webgunean.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraituz, epaitu beharreko proben edukiak nolakoak diren kontuan hartuta osatuko da Epaimahaia. Epaimahaikiderik gehienak karrerako funtzionarioak edo langile finkoak izango dira eta 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute.

Epaimahaikideak euren izenean arituko dira; ezin izango dute epaimahaikide bezala aritu, beraz, beste erakunde edo pertsona baten izenean.

Epaimahaiak, idazkari lanetarako, IVAPeko langile baten laguntza izango du.

Epaimahaiak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, izaera horrekin bakarrik hartzen baitute parte kalifikazio-organo horretan.

Epaimahairen jarduera azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 22. eta hurrengo artikuluen arabera izango da.

9. oinarria.– Azterketaldia. Azterketa idatzia eta ahozko azterketa.

Edozein hizkuntza eskakizun egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu; azterketa horiek idatzia eta ahozkoa dira, eta hurrenkera horretan egingo dira. Bi azterketa horiek baztertzailak izango dira. Beraz, idatzizko azterketa gainditzen dutenek baino ez dute ahozko azterketan parte hartzeko aukerarik izango.

10. oinarria.– Azterketa idatzia.

Lehenengo azterketa idatzizkoa izango da. Azterketa horretan trebetasun bi neurtuko dira: irakurmena eta idazmena. Trebetasun bakoitza neurtzeko berariazko proba bat egongo da, eta proba horrek ariketa bat baino gehiago izan ditzake. Irakurmen proba gainditu egin beharko da idazmen proba zuzendu ahal izateko, eta idatzizko azterketa gainditzeko trebetasun biei dagozkien probak gainditu beharko dira.

11.oinarria.– Ahozko azterketa.

Bigarren azterketa ahozkoa izango da, eta horretan mintzamena eta entzumena neurtuko dira. Trebetasun bakoitza neurtzeko beren beregiko proba bat egongo da, eta proba horrek ariketa bat baino gehiago izan ditzake. Ahozko azterketa gainditzeko trebetasun biei dagozkien probak

gainditu beharko dira. Mintzamina grabatu egingo da, ez bada azterketariak horretarako baimena propio ezezten duela.

12. oinarria.– Azterketa egunak eta toki-orduak.

IVAPek azterketen egutegia eta azterketak egiteko tokiak egokituko ditu, betiere eskaera-kopurua eta azterketak egiteko behar diren baliabideak kontuan hartuta. Baldintza bi horiek aintzat hartuta, aukera egongo da azterketa bat baino gehiago egun eta ekitaldi bakarrean bateratzeko.

Azterketen egunak, lekuak eta orduak IVAPen webgunean jakinaraziko dira. Bertan zehazten diren azterketa egunak eta tokiak ofizialak dira eta azterketariak, onartuta dauden hizkuntza eskakizunaren arabera, bakoitzari egokitu zaion egunean eta tokian egingo dute azterketa. Hala ere, onartuen behin-behineko zerrenda eta behin betikoa argitaratu bitartean, 7 eguneko epea egongo da azterketa-lekuak aldatzea eskatzeko, betiere arrazoituta badago. Hortik aurrera ezin izango da leku aldaketarik eskatu.

Azterketa egin ahal izateko derrigorrezkoa da azterketariak NANA, pasaporte edo gidatzeko baimena aurkeztea.

13. oinarria.– Ebaluazio irizpideak. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua.

Hizkuntza-eskakizun bakoitzean eskatzen den ezagupen maila neurtzeko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua hartuko da kontuan. B1, B2, C1 eta C2 mailen deskribapena eta ezaugarriak IVAPen webgunean daude ikusgai.

14. oinarria.– Azterketak kalifikatzeko modua.

Trebetasun bakoitzaren emaitza (irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina), bai azterketa bakoitzarena, bai prozesu osoarena, orokorra izango da, hau da, «gai» edo «ez gai». Trebetasunak ebaluatzeko proba bakoitzak bere emaitza izango du eta IVAPen webgunean publikatuko dira.

15. oinarria.– Trebetasunei dagozkien proben zuzenketa eta hurrenkera.

Irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina baztertzailleak dira eta emaitzak «gai» izan behar du trebetasun bakoitzari dagokion proban hurrengo trebetasunari dagokion proba zuzendu ahal izateko.

16. oinarria.– Azterketa idatziaren emaitza gordetzea.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko IVAPeko zuzendariaren 2014-02-10eko deialdian azterketa idatzia (irakurmena eta idazmena) gainditu bai, baina ahozko azterketa (entzumena eta mintzamina) gainditu ez zuten izangaiak salbuetsita daude ebazpen honen bidez deitutako deialdian idatzizko azterketa egitetik; hortaz, zuzenean joango dira ahozko azterketara. Hala ere, izangai horiek guztiek izena eman beharko dute deialdi honetan, dagokion epearen barruan.

Azterketetara onartutako Ertzaintzaren praktiketako eta karreradun funtzionarioen kasuan, 2014ko apirilaren 3ko Ebazpenaz (apirilaren 16ko EHAA, 74. zk) argitaratutako deialdian azterketa idatzia gainditu duten Ertzaintzaren praktiketako eta karreradun funtzionarioek zuzenean egin ahal izango dute ahozko azterketa. Edonola ere, izangai horiek izena eman beharko dute deialdi honetan, dagokion epearen barruan.

Era berean, deialdi honetan idatzizko azterketa gainditu bai, baina ahozko azterketa gainditzen ez dutenei, azterketa idatziaren emaitza gorde egingo zaie IVAPen 2015eko lehenengo ohiko deialdirako, eta deialdi horretan ere izena eman beharko dute dagokion epean.

17. oinarria.– Azterketa idatziaren emaitzak eta erreklamazio epea.

Azterketa idatziaren behin-behineko emaitzak Epaimahaiak onartu eta IVAPeko webgunean argitaratuko dira. Azterketa idatzia gainditzen dutenek baino ez dute egingo ahozko azterketa, eta azterketa idatziaren behin-behineko emaitzaren kontra erreklamazioa jarri nahi duenak prozesuaren behin-behineko emaitza orokorrak argitaratu arte itzarongo du, hau da, ezin izango du erreklamaziorik egin fase honetan.

18. oinarria.– Ahozko azterketaren emaitzak eta behin-behineko emaitza orokorrak.

Ahozko azterketaren behin-behineko emaitzekin batera, Epaimahaiak prozesuaren behin-behineko emaitza orokorrak onartuko ditu. Prozesuko behin-behineko emaitza orokorrak IVAPen webgunean argitaratuko dira IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez; era berean, argitalpenaren edukia labur-labur argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta bertan adieraziko da interesdunek nora jo behar duten eduki osoa jakiteko (30/1992 Legea, 61. artikulua).

19. oinarria.– Erreklamazioak eta behin betiko emaitza orokorrak.

Behin-behineko emaitza orokorren aurkako erreklamazioak aurkezteko 5 egun naturaleko epea irekiko da, gutxienez, egintza EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori igarota, erreklamaziorik jaso ez duten hizkuntza eskakizunen egiaztapenak behin betiko bihurtuko dira, eta ondorioak izango dituzte argitaratzen diren egunetik hasita.

Azterketarien erreklamazioak aztertu eta ebatzita, epaimahaiak prozesuaren behin betiko emaitza orokorrak onartuko ditu eta IVAPen webgunean eta EHAAn jakinaraziko dira, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez.

Prozesuaren behin betiko emaitzak jakinarazten dituen IVAPeko zuzendariaren Ebazpenaren aurka, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114 eta hurrengo atalen arabera, Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren aurrean gora jotzeko errekurtsua ezarri ahal izango da.

20. oinarria.– Egintzak argitaratzea.

Prozesu honetako egintza eta iragarki guztiak IVAPen webgunean argitaratuko dira. Ertzaintza-eren kasuan, horiek guztiak saileko Gurenet intranetean ere argitaratuko dira aldi berean. Hala ere, deialdia onartzen duen eta prozesuko behin-behineko eta behin betiko emaitza orokorrak jakitera ematen dituzten IVAPeko zuzendariaren Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko dira.

21. oinarria.– Ziurtagiriak non jaso.

Azterketa hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek IVAPeko zuzendariaren ziurtagiria jasoko dute eskaera-orrian lanean ari direla adierazi duten administrazioan.

22. oinarria.– Datu pertsonalak.

Prozesuan bildutako datu pertsonalak «Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea» izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira (Agindua, 2008ko urtarrilaren 15ekoa, Jaurkitzearen lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, EHAA 30. zk., 2008ko otsailaren 12koa). Fitxategi horren xedea eta aurreikusitako erabilerak honako hauek dira: lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzearen jarraipena eta kudeaketa, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak araututakoaren arabera; ohiko deialdietako eskabideen kudeaketa; baliokidetzen kudeaketa; hautaketa prozesuen kudeaketa; ebaluatzaileen kudeaketa; egiaztatutako hizkuntza

eskakizunen erregistroa sortzea; eskatzaileen, historikoen, ziurtapenen eta egiaztapenen kudeaketa; azkenik, salbuetsitakoen erregistroa sortzea eta azterlanak eta estatistikak burutzea.

Fitxategi horren erabilerak bat egingo du datu pertsonalen babesari eta jabetza publikoko datu pertsonaleko fitxategiei buruzko legediarekin (Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, eta garapeneko araudia). Fitxategiaren arduraduna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza da. Datuetara jo, datuak aldatu, aurka egin eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zerbitzu edo unitate honetara jo behar da: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusia, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Bestetik, urriaren 16ko 222/2012 Dekretuak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria-tua (ETZEB) sortu eta arautu zuen; bertan xedatzen den bezala, Erregistroak datuak jasoko ditu lehendik dauden erregistro batzuetatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko erregistrotik ere bai, besteak beste; horrela bada, Erregistro Bateratuaren ardura Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariarena da, eta datuetara jo, datuak aldatu, aurka egin eta ezabatzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaritzara jo beharko da.

23. oinarria.– Errekurritzea.

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein epaimahaiaren jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurka ditzakete interesatuek, beti ere azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak– jasotako kasu eta moduetan.

2014ko irailaren 9a, asteartea



**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK
(2014/2)
ESKABIDE-ORRIA**

ESKATZAILEAREN DATUAK

1. abizena	2. abizena	Izena
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Jaioteguna	NAN	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

ERAKUNDEAREN DATUAK

Erakundea	Saila	Zuzendaritza
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Helbidea		Telefonoa/Luzapena
<input type="text"/>		<input type="text"/>

Parte hartu nahi dut Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, ebazpenaren bidez, dei egindako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke azterketetan.

Onartu egiten dut ebazpenaren helburua betetzeko (hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak jarraitu eta kudeatu) jasoko diren datu pertsonalen tratamendua eta argitalpena. Datu horien tratamendua egingo da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuak xedatutakoaren arabera. Informazioa erregistratutako fitxategi batean egongo da eta datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo daiteke: Donostia-San Sebastián kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz (ikus deialdiaren 22. klausula)

Langilearen sinadura**Erakundea (sinadura)**

<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------

Data eta tokia**Erakundea (zigilua)**

<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------

LANPOSTUAREN DATUAK (Orain betetzen duzun lanpostuaren datuak)

Lanpostu-zerrendan agertzen den lanpostua		
Lanpostuaren izena	Lanpostuaren kodea	Dotazio-zenbakia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Lanposturik gabe lanpostu-zerrendan	<input type="checkbox"/>	



2014ko irailaren 9a, asteartea



**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK
(2014/2)
ESKABIDE-ORRIA**

Hizkuntza-eskakizuna

1 2 3 4

Derrigortasun data

Hizkuntza-eskakizunik gabe

LAN EGOERA

EAEko herri-administrazioako langileak

Karrerako funtzionarioa

Lan-kontratu finkoduna

Praktikaldiko funtzionarioa

Bitarteko funtzionarioa

Aldi baterako lan-kontratuduna

Kidegoa, eskala edo maila

EAEko Justizia Administrazioako Karrera Judizialeko, Karrera Fiskaleko eta Idazkari Judizialen Kidegoko kideak

Karrera Judizialeko kidea

Karrera Judizialeko kidegaia

Ordezko magistratua

Behin-behineko epailea

Ordezko epailea

Bake-epailea

Karrerako fiskaleko kidea

Ordezko fiskala

Karrera Fiskaleko kidegaia

Idazkari judiziala

Behin-behineko idazkari judiziala

Idazkari Judizialen kidegaia

ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Zein hizkuntza-eskakizunetara aurkeztu nahi duzu?


1 2 3 4

Non egin nahi duzu azterketa?

ARABA

BIZKAIA

GIPUZKOA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo deEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2014ko irailaren 9a, asteartea



**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK
(2014/2)
ESKABIDE-ORRIA**

4. hizkuntza-eskakizunera aurkeztu nahi dutenentzat bakarrik

3. HEren baliokidea den tituluren bat daukat

*Zein?

AIPA ITZAZU ZURE LANPOSTUA KOKATUTA DAGOEN ARLO EDO ZERBITZUAREN HIRU EGINKIZUN NAGUSIAK:

-
-
-

AIPA ITZAZU ZURE LANPOSTUAREN HIRU EGINKIZUN NAGUSIAK:

-
-
-

*Fotokopia atxiki behar duzu aurkezten zaren lehenengo aldia bada

ELBARRITASUNA

Azterketak egiteko egokitzapenen bat behar baduzu, adierazi zein:


.....

.....

.....

.....

.....



Erkuntza autonomiaduna
Organismo Autónomo de



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**